



I.E.S. PIO BAROJA BHI

IRUN

ONGI ETORRI BATXILERGORA

Batxilergoa eskakizun-maila handiko ikasketa moldea da. Batxilergoa DBHren ondoan oso bestelakoa da. Batxilergoa oinarrizkoa da ikaslearen prestakuntza orokor eta profesionalean eta horregatik gure arreta osoa merezi du. Nola nahi ere, uste izanez gero ikaslearen Batxilergorako prestakuntza-maila ahula dela, badira Batxilergora iristeko zehar-bideak ere, Lanbide Heziketako Erdi Mailako zikloak, adibidez. Ikasketa hauek egin eta gero beti berriro batxilergoa egitera etor daiteke edo ikasi Lanbide Heziketako Goi Mailako Ziklo bat.

Batxilergoa eskakizun-maila handiko ikasketa moldea da eta Unibertsitateak ezarritako frogak batekin bukatzen da. (Unibertsitateera joan nahi dutenentzat, USE). Batxilergoa DBHren ondoan oso bestelakoa da. Batxilergoa oinarrizkoa da ikaslearen prestakuntza orokor eta profesionalean eta horregatik gure arreta osoa merezi du. Nola nahi ere, uste izanez gero ikaslearen Batxilergorako prestakuntza-maila ahula dela, badira Batxilergora iristeko zehar- bideak ere, Lanbide Heziketako Erdi Mailako zikloak, adibidez.

Batxilergoa gainditzeko ikasi egin behar da, sufritzen ikasteko borondatea izan behar da eta ikasketei denbora eta ahalegina eskaini behar zaizkie. Ez dago beste biderik. Klaseetan adi egon, lanak egin eta azterketa-bezperan estudiantzea ez da nahikoa. Batxilergoan egunero- egunero heldu behar zaie jakintzagai guztiei.

Badira 1. ebaluazioaren ondoren desanimatu egiten diren ikasleak. Ikasketak bertan behera uztea ere pentsatzen dute. Ikasle horiei aurrera egiten lagundu egin behar zaie animoa emanez: laguntza beharrean badira, bila dezatela. Ikasturtea berrantola dezatela, artean, 2. eta 3. ebaluazioak eta azkena ere falta direlako.

Ikasle guztiak ez dira askotan guk nahi genituzkeen bezain helduak eta ikasketetan Batxilergoraino iritsi badira ere, gurasoen eta etxekoen laguntza behar izaten dute.

Zenbaitetan Unibertsitatera iristeko batez besteko nota altu samarra eskatzen da. Jakitekoa da Batxilergoko Lehen zein Bigarren ikasturteko notek balio bera dutela. Horrek esan nahi du Batxilergoko Lehen ikasturteko lehen ebaluazioko notek Unibertsitatera sartzeko balio dutela.

Ikasle batzuek ez diete adore berarekin ekiten jakintzagai guztiei. Ez da ahaztu behar jakintzagai guzti-guztiak gainditu behar direla batxiler titulua lortzeko.

Eskolaz kanpoko jarduerak (musika, kirola...) ikasketekin bateratzeko modukoak izan behar dute. Oso komenigarria da lehentasunak argi izatea. Era berean, gero eta ikasle gehigok ematen ditu orduak eta orduak bideojokoetan (play, ordenagailua...) edota messengeren. Jarduera horiei eskainitako denbora zaintzea komeni da.

Ikasleak aurkitzen diren adinean eta nortasun-aldagunean aurkitzen direlako aise konturako gara dauzkaten egonezin emozionalaz, antsietateaz eta bestelako aldaketez. Horiek guztiek lan akademikoan eragina izan dezakete. Horregatik orain ere onarpena, onberatasuna, umore ona, komunikazioa eta kariñoa behar dituzte gazteek, aurreko urteetan bezala. Batxilergo- garaian gazteek gurasoekiko lotura ahuldu eta erabakimena handiagotu egiten dute. Aldatu- behar hori guztia ez da kontraesanik eta jarrera bihurrik gabea izaten. Gazteak onerako ditu lagunduko dioten nagusiak inguruan; onerako du, era berean, haiengan konfiantza izatea galderak egiteko eta pentsaraziko dioten erantzunak hartzeko. Gazteek laxotasun handiagoa ere nahi izaten dute, eta ongi da ematea, aldi berean, baina, erantzunkizuna ere hartzen dutelarik.

Egunero-egunero 8 orduko loa, jatorduak zaintzea eta ariketa fisikoa egitea osasungarri izaetaz gainera, ikasturtea airoso gainditzen lagungarri izango ditu ikasleak. Klasetara joatea eta egunero-egunero ikastea oinarri-oinarrizkoak dira. Hau guztia arretaz zainduz Batxilergoa gainditzea ez da horrenbestekoa. Laguntza, argibideren bat edo orientabidea nahi izanez gero, etorri gugana.